

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ayerdi lehendakariordeak VW-eko zuzendaritza eta sindikatuetakoko ordezkariak lan egitera animatu ditu modelo berriaren esleipena lor dezaten

TRWko bitartekaritza-prozesua goizaldean akordiorik gabe amaitu izanagatik atsekabetuta agertu da

Miércoles, 17 de febrero de 2016

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik Nafarroako Volkswagen enpresa eta plantillako ordezkariak dei egin die "akatsik gabe eta sendo" lan egiten jarrai dezaten, honako hau lortze aldera: multinazionalak Landabengo lantegiari bigarren modelo baten fabrikazioa esleitzea, Poloaz gain.

"Aukera paregabea da, kalitatezko enplegua eta aberastasuna sortzeko aukera argia. Eta Foru Komunitateko sektore estrategikoetako batean egiten ari gara. Helburu partekatua argia da", esan du lehendakariordeak Gobernu bileraren ondoren Nafarroako Jauregian emandako prentsaurrekoan.

Lehendakariordeak azpimarratu du konpainiarako bigarren modelo bat fabrikatzea "aukera aparta" dela, bai eta hornitzaile-sarerako nahiz Foru Komunitate guztirako ere.

Enpresak, langileen ordezkariak eta, ahal izan duen neurrian, Nafarroako Gobernuak azken hilabeteotan egindako lanari egozten dio; Nafarroako Gobernuak, gai honetan, Espainiakoarekin harremanetan izan da. "Aukera ez da bat-batean sortu", adierazi du.

"Ilusio handia pizten duen une batera heldu gara", aipatu du Ayerdik; nolana ere, "azkeneko zatia" falta dela esan du, eskaintza hori behar bezala amaitzea.



Automobilgintza-katea.

Erantzukizuna

Lehendakariordea triste agertu da Nafarroako Volkswageneke sortutako "aukeraren poza" TRWk bizi duen egoerak eragin izanagatik.

Ayerdik jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak TRWn egindako bitartekaritza-prozesua (zuzendaritza eta plantillako ordezkartzaren artean) "zoritarrez" goizaldean akordiorik gabe amaitu da.

Ayerdik azaldu du bi egun luzeren ondoren, gaur goizaldera arte Gobernuak aldean arteko jarrerak hurbiltzen saiatu dela (250 kaleratze eta TRWk eskainitako hitzarmen berria eta batzordeak defendatutako behartutako irteerarik ez izatea). Nolanahi ere, azaldu duenez, "enpresak gehienez erakutsi ahal izan duen postura enpresa-batzordeak onartzeko prest zegoen gutxieneko posturara ez zen iristen", aipatu du elkarguneak topatzeko arazoari erreferentzia eginez.

Gaurko funtsezko egunaren aurrean, enplegua iraungitzeko espedientea negoziatzeko epea amaitzen da, lehendakariordeak langileei ondorengo eskatu die erabaki bat hartzeko garaian: "Bihotzarekin eta buruarekin aldi berean hartu dezatela, erantzukizuneko ikuspegi batetik".

"Funtsezko une baten aurrean gaude, erabakigarria dena, lantegiaren iragana eta etorkizuna finkatuko dituen puntu batean", esan du kontseilariak. Egoerak zer min sortzen duen ikusirik, Ayerdik aitortu du plantilla osatzen duten pertsonak "beren erabakia hartzeko burujabeak" direla.

"Nafarroako Gobernuak muturreraino errespetatuko du. Hasierako kopurua izan ez arren, irteera traumatikoen bolumen bat zuen plangintza batez ari gara. Zaila da", azaldu du. "Etorkizunean Nafarroan TRW proiektua izatea gustatuko litzaidake. Ahalik eta baldintza onenetan", aipatu du.